

Txostena

Informe

**Itunpeko zergen desbideraketen
analisi: Zioak eta gastuak
finantzatzeko emandako erabilera**

**Análisis de las desviaciones de
tributos concertados: causas y su
utilización para la financiación de
gastos**

2003-2005



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA.....	5
II. DESBIDERAKETEN ANALISIA	7
II.1 Aurreikuspenak eta bildutako dirua, 2003-2005 ekitaldietan	7
II.2 Laburpena, Aldundiak bereizita	9
II.3 Analisia, Zergak bereizita	10
II.3.1 Zuzeneko zergak.....	10
II.3.2 Zeharkako zergak.....	14
II.3.3 BEZ-arengatik eta zerga bereziengatik doikuntzak	18
III. SOBERA BILDUTAKO DIRUEN XEDEA.....	20
III.1 Erakundeen arteko banaketa	20
III.2 Sobera bildutako diruen xedea	22
IV. AZALPENEZKO ATALAK	26
IV.1 EAE-ko finantzaketa eredia.....	26
IV.2 Diru bilketa, Urteak eta Erakundeak bereizita.....	30
IV.3 Bilakaera, 1996-2002 aldian	33
IV.4 Diruzaintzako geldikinarenkin finantzatutako aldaketak	33
ALEGAZIOAK	73



I. INTRODUCCIÓN	39
II. ANÁLISIS DE LAS DESVIACIONES	41
II.1 Previsiones y recaudación de los ejercicios 2003-2005	41
II.2 Resumen por Diputaciones	43
II.3 Análisis por tributos	44
II.3.1 Impuestos directos	44
II.3.2 Impuestos indirectos	48
II.3.3 Ajustes por IVA e Impuestos especiales	52
III. ANÁLISIS DEL DESTINO DE LOS EXCESOS DE RECAUDACIÓN	54
III.1 Reparto entre instituciones	54
III.2 Destino del Incremento de Recaudación	56
IV. APARTADOS EXPLICATIVOS	60
IV.1 Modelo de financiación de la CAE	60
IV.2 Recaudación por años e instituciones.....	64
IV.3 Evolución período 1996-2002.....	67
IV.4 Modificaciones financiadas con Remanente de Tesorería	67
ALEGACIONES	74

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren martxoaren 14a
Vitoria-Gasteiz, 14 de marzo de 2008



I. SARRERA

Txosten honen aztergai dira 2003-2005 aldirako aurreikusitako diru sarreretako desbideraketak, desbideraketen arrazoizkotasuna, eta desbideraketak nola erabili diren gastuak finantzatzeko. Txosten hau, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraituz egin da, eta 2006 ekitaldiari dagokion Urteko Lan Programan sartuta dago, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak hala eskatuta.

Hau izan da lana:

- Zerga itunduen 2003-2005 aldirako aurreikuspena eta diru bilketa aztertzea (urtez urte, zergaz zerga eta erakundez erakunde izan diren desbideraketa nabarmenenak zehaztuta).
- Erakunde bakoitzak ekitaldi horietako bakoitzerako aurreikuspenari eta diru bilketari buruz egindako txostenak aztertzea.
- Aztertutako aldiko aurreikuspenak eta diru bilketaren gehikuntzak konparatzea, Estatuko eta Nafarroako ogasunei dagozkienekin eta ekonomia-adierazle orokorrekin alderatuta.
- Erakunde konpromisoak bete eta gero, aurreikuspenaren aldean sobera lortutako diru kopuruek sortu dituzten baliabide erabilgarriak zehaztea, erakunde eta ekitaldi bakoitzerako.
- Diru bilketako aurreikuspenean izandako desbideraketak direla eta eskuratutako baliabide gehigarriekin erakunde bakoitzak finantzatu dituen gastuak aztertzea.

Autonomia Estatutuak ezarri du Euskadik bere ogasun autonomoa izango duela, eta lurralde historikoetako foru aldundiei eman die zerga itunduak ordainarazteko, kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ahalmena.

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (aurrerantzean, EAE) arteko Ekonomia Itunak, bien arteko finantza eta zerga harremanak arautzen ditu. Kupoia zehazteko metodologia ezartzen du; kupo horren bidez, Euskadik Estatuaren gastuak finantzatzen laguntzen du eskumenak bereganatuak ez dituen gaietan. EAEaren antolamenduak hiru maila ditu: Euskadiko ogasun orokorra (EAE osorako erakundeena), foru ogasunak (lurralde historikoena) eta toki ogasunak (udalena).

Finantza jarduera publikoak duen hiru mailako erakunde egitura hori dela eta, beharrezkoak dira finantza fluxuak. Lurralde historikoetako foru ogasunek Euskadiko ogasun orokorrari egin beharreko ekarpenen zehaztapena, Eusko Legebiltzarraren lege baten bidez onartzen da. Beste alde batetik, arau horrek berak bermatzen du toki ogasunek partaidetza izatea zerga itunduak eta itundugabeak biltzean.

Ondorengo hau da aztergai dugun aldian indarrean zen legedia:



- 12/2002 Legea, 2002ko maiatzaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onetsi zuena.
- 13/2002 Legea, 2002ko maiatzaren 23koa, 2002-2006 bosturtekorako Euskadiren kupoa zehazteko metodologia onetsi zuena (aurrerantzean, Kupoaren Legea).
- 27/1983 Legea, 1983ko azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa (aurrerantzean, LHL).
- 6/2002 Legea, 2002ko urriaren 4koa, baliabideak banatzearren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpenak zehaztearren 2002-2006 aldian aplikatuko den metodologiarena (aurrerantzean, Ekarpunen Legea).

LHLak Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua (aurrerantzean, HDEK) sortu zuen. Organo horrek sei kide ditu: Eusko Jaurlaritzak izendatutako hiru, eta foru aldundiek izendatutako beste hiru (foru aldundi bakoitzak bat). HDEKren zereginen artean, honako hau dago: Estatuari ordaindu beharreko kupoa kendu eta gero, Ekonomia Itunaren kudeaketatik datozen baliabideen banaketa zehaztearena.

HDEK-k, urrian, indarrean den ekitaldiko zerga itunduen bilketako itxierako aurreikuspena egiten du, abuzturaino metatutako bilketa azterturik, eta laugarren hiruhilekorako aurreikus daitekeen bilketari egokitzeko doituta. Itxierako aurreikuspen horren gainean, ekonomia ingurunea azterturik eta zergetako foru arauetako aldaketaren ondorioa balioztaturik, zerga eta aldundi bakoitzerako hurrengo ekitaldirako espero den hazkundera kalkulatu da, eta zerga itunduetako bilketaren aurreikuspena onartzen. Horrela zehaztutako aurrekontua, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzearren foru aldundiek egin beharreko ekarpenak kalkulatzeko oinarri gisa erabiltzen da. Ekarpunen horiek, zenbateko berdineko sei epetan ordaintzen dira.

Urrian, arestian aipatutako itxierako aurreikuspena egitean, urteko ekarpunen azken epearekin ordaintzen den aurrelikidazioa kalkulatu da.

Ekarpunen behin betiko likidazioa, bilketako behin betiko datuekin, ekitaldi horren hurrengo otsailean egiten eta onartzen da.

Txosten honen egiturari, bi alderdi bereizi ditugu:

- Zerga itunduen aurreikuspenaren eta bilketaren artean, ekitaldietako bakoitzean gertatu diren desbideraketen analisia.
- Ekitaldietako bakoitzean aurreikuspenen aldean sobera bildutako diruen xedea, bi alde hauek zehaztuta: erakundeen artean izan duten banaketa, eta erakunde bakoitzak eman dion azken erabilera.



II. DESBIDERAKETEN ANALISIA

II.1 AURREIKUSPENAK ETA BILDUTAKO DIRUA, 2003-2005 EKITALDIETAN

Aztergai diren hiru ekitaldietako bakoitzean zerga itunduengatik bilduko zela HDEK-k aurreikusitako diru kopurua, azkenean bildutakoa, eta bi kopuru horien arteko desbideraketa, honako hau izan da:

	Milioi euro								
	2003			2004			2005		
	Aurreik.	Bildua	Desb.	Aurreik.	Bildua	Desb.	Aurreik.	Bildua	Desb.
PFEZ.....	2.904,6	3.018,0	% 3,9	3.149,5	3.051,9	(% 3,1)	3.263,2	3.403,7	% 4,3
Sozietateen gaineko Z.....	1.029,7	1.039,2	% 0,9	1.076,9	1.139,5	% 5,8	1.172,6	1.440,4	% 22,8
Gainerakoa.....	211,7	161,1	(% 23,9)	175,8	170,9	(% 2,8)	163,6	232,1	% 41,9
ZUZENEKO ZERGAK	4.146,0	4.218,3	% 1,7	4.402,2	4.362,3	(% 0,9)	4.599,4	5.076,2	% 10,4
BEZ (kudeaketa propioa).....	1.980,8	2.088,9	% 5,5	2.198,9	2.404,8	% 9,4	2.428,8	2.973,6	% 22,4
Fabrikazioko Z. Bereziak.....	1.185,7	1.210,6	% 2,1	1.293,7	1.294,8	% 0,1	1.332,4	1.340,4	% 0,6
Beste zeharkako zerga batzuk.	464,8	504,4	% 8,5	512,2	563,1	% 9,9	594,5	609,5	% 2,5
ZEHARKAKO ZERGAK	3.631,3	3.803,9	% 4,8	4.004,8	4.262,7	% 6,4	4.355,7	4.923,5	% 13,0
TASAK ETA BESTE SARR.....	104,5	108,5	% 3,8	112,5	103,5	(% 8,0)	107,7	105,3	(% 2,2)
JENEROTAKO SARRERAK.....	0,0	2,9	-	0,0	0,3	-	0,0	0,0	-
KUD. PROPIOKO Z. ITUN.	7.881,8	8.133,6	% 3,2	8.519,5	8.728,8	% 2,5	9.062,8	10.105,0	% 11,5
BEZ doikuntza.....	1.141,2	1.163,5	% 2,0	1.214,9	1.241,4	% 2,2	1.351,9	1.212,7	(% 10,3)
Zerga berezien doikuntza.....	(70,7)	(88,9)	(% 25,7)	(115,0)	(63,0)	% 45,2	(90,4)	(52,3)	% 42,1
DOIKUNTZAK, GUZTIRA	1.070,5	1.074,6	% 0,4	1.099,9	1.178,4	% 7,1	1.261,5	1.160,4	(% 8,0)
Z. ITUNDUAK, GUZTIRA	8.952,3	9.208,2	% 2,9	9.619,4	9.907,2	% 3,0	10.324,3	11.265,4	% 9,1
SOBERA BILDUTAKOA		255,9			287,8			941,1	

Ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren aldean izandako desbideraketak aztertzean, kontuan izan behar dira aurreikuspenak egitean aurreikusitako bilketa gehikuntzak, eta benetan izandako bilketa gehikuntzak.

Ondoren, kopuru horiek daude adierazita, aztertutako ekitaldi bakoitzerako:

	2003	2004	2005
Bilketa gehikuntzaren aurreikuspena, aurreko ekitaldiko itxierako kalkuluaren gainean	% 3,5	% 5,4	% 5,4
Benetan izandako bilketa gehikuntza	% 6,2	% 7,6	% 13,7
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 2,9	% 3,0	% 9,1



Ateratzen den lehenengo ondorioa da, aztertutako ekitaldi guztietan aurreikuspenaren aldean izandako desbideraketa goranzkoa izan dela. Izan ere, guztietan izan da aurreikusi baino bilketa handiagoa.

2003 eta 2004 ekitaldietako desbideraketak arrazoizkoak dira, % 3 ingurukoak; 2005ekoa, berriz, nabarmena da, 941,1 milioi euro, hots, % 9,1.

Zerga itunduen aurrekontua, dagokion ekitaldiaren aurreko ekitaldiaren itxierako aurreikuspenaren gainean egiten da. Itxierako kalkulu hori egiteko, abuzturaino lortutako bilketa gehikuntza estrapolatzen zaio aurreko ekitaldiko azken bilketari, eta hainbat doikuntza egiten da, distortsioak saihesteko. Horregatik, ekonomia ingurunearen ebaluazioaren eta arauetako aldaketen eraginez kalkulaturako bilketaren gehikuntzak ez ezik, aurreko ekitaldiko itxierako aurreikuspenen betetze mailak ere zehazten du indarrean den ekitaldiko aurrekontuaren aldean gertatzen den azken desbideraketa.

Desbideraketen xehetasuna, bi kontzeptu horiei begiratuta, honako hau da:

	Milioi euro		
	2003	2004	2005
Aurreko ekitaldiko itxierako aurreikuspeneko desbid.	25,0	82,0	114,5
Hazkunde aurreikuspeneko desbideraketa.....	230,9	205,8	826,6
Desbideraketa, guztira	255,9	287,8	941,1

Aztertutako hiru ekitaldietan, itxierako aurreikuspenen desbideraketak % 0,3, % 0,9 eta % 1,1 izan dira, hurrenez hurren.

Bilketako hazkundearen aurreikuspena egiteko, ekonomiari espero zaion hazkundera aztertzen da, barne produktu gordina (BPG) aintzat hartuta. 2003, 2004 eta 2005 ekitaldietako aurreikuspenak, BPGaren hazkundearen behin betiko datuak baino txikiagoak izan dira, % 1,3, % 2,5 eta % 1,2, hurrenez hurren.

Desbideraketek guztira aurreko ekitaldiko itxierako aurreikuspenean izandako eraginak eta BPGaren hazkunde tasan izandako eraginak esplikatzen dituzte 2003 eta 2004 ekitaldietako desbideraketak; 2005ean, oster, % 6,35 da aldea.

Bilketa gehikuntzak eta Estatuak egindako aurreikuspenetako desbideraketak honako hauek izan dira:

	2003	2004	2005
Bilketaren gehikuntza	% 5,7	% 8,2	% 14,1
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 1,9	% 1,4	% 6,2



Aurreko datuak aztertuta, ondorioztatzen da aurrekontuarekiko desbideraketak handixeagoak izan direla EAEn, 1,8 ehuneko-puntu inguru, eta bilketaren gehikuntzak Estatuarenak baino 0,2 puntu txikiagoak izan direla.

Nafarroako Foru Erkidegoan izandako bilketako aldakuntzak, EAEkoak baino txikixeagoak izan dira. Aztergai ditugun hiru ekitaldietan, % 2,6, % 6,5 eta % 11,3 izan dira, hurrenez hurren.

Ondorio gisa:

- Finantza Publikoetarako Euskal Kontseiluak diru bilketako aurreikuspen zuhurrak egiten ditu. Zuhurtasun hori, ezinbestean, finantzaketa ereduarekin erlazionatu behar dugu, erakunde konpromisoak zuzenean lotzen baititu bilketarekin; beraz, sarrerren aurrekontu handiago batek, foru aldundiek Eusko Jaurlaritzari “konturako” ekarpen handiagoa egin beharra dakarte beti.
- Aurreko ekitaldiko itxierako aurreikuspena, bilketaren aurreikuspena egiteko oinarri dena, bilketak ekitaldiko lehen zortzi hiletan izandako bilakaera aztertuz egiten da. Hurrenez hurreneko hamabi hilabeteko bilketaren bilakaeran oinarritutako estrapolazioak, aurreikuspen zehatzagoa eman beharko luke, eta desbideraketa txikiagotu.
- Desbideraketak ez direla aztertzen nabari da. Horrek zaildu egin dezake zenbait zergatan aurreikuspen egokiak egitea.

II.2 LABURPENA, ALDUNDIAK BEREIZITA

Aztergai diren hiru ekitaldietako bakoitzean zerga itunduengatik bildutako diruaren xehetasuna, eta HDEK-k aurreikusitako diru kopurua, erakundeetako bakoitzerako, azalpenen IV.2, atalean jasota dago.

Aurrekontuaren aldean izandako desbideraketak, bai eta foru aldundi bakoitzak aurreikusitako eta azkenean eskuratutako bilketa gehikuntzak, hurrengo taulan laburbilduta daude:



	AFA	BFA	GFA	GUZTIRA
2003				
Gehikuntza orokor aurreikusia, 2003/2002.....	% 3,8	% 3,5	% 3,3	% 3,5
Gehikuntza orokor eskuratua, 2003/2002	% 4,0	% 6,4	% 6,8	% 6,2
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 0,8	% 2,3	% 4,7	% 2,9
2004				
Gehikuntza orokor aurreikusia, 2004/2003.....	% 5,3	% 5,7	% 4,9	% 5,4
Gehikuntza orokor eskuratua, 2004/2003	% 11,6	% 7,1	% 6,4	% 7,6
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 5,9	% 2,0	% 3,1	% 3,0
2005				
Gehikuntza orokor aurreikusia, 2005/2004.....	% 5,2	% 5,4	% 5,4	% 5,4
Gehikuntza orokor eskuratua, 2005/2004	% 10,5	% 16,5	% 11,0	% 13,7
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 6,2	% 12,0	% 6,2	% 9,1

Aurreko datuak aztertuta, ondorioztatzen da aurreikuspenekiko desbideraketak ez direla homogeneoak erakunde eta ekitaldi guztietan. Hartara, 2003an desbideraketa handiena Gipuzkoako Foru Aldundiarena (GFA) da, % 4,7; 2004an, Arabako Foru Aldundiarena (AFA) nabarmentzen da, % 5,9; eta 2005ean, Bizkaiko Foru Aldundiarena (BFA) da nabarmenena, % 12 desbideratuta.

Bilketaren gehikuntzei dagokienez, aipatzekoa da 2003an Arabako Foru Aldundiak batez bestekoa baino 2 puntu beherago handitzen duela bilketa, eta 2004an, berriz, batez bestekoaren 4 puntu gainetik gehitzen duela. 2005ean, aipagarri da Bizkaiko Foru Aldundiaren bilketaren gehikuntza, batez bestekoa baino 3 puntu gehiago izan baitzen.

Azken batean, foru aldundien bilketak ekitaldi horietan guztietan izandako aldaketen arteko konpentsazioak gertatzen dira. Kontuan izan beharrekoa da hiru lurraldeen ekonomia eta enpresa egitura ezberdinxea dela. Beraz, ekonomia hazkundearen eraginak une ezberdinetan islatzen dira.

II.3 ANALISIA, ZERGAK BEREIZITA

II.3.1 ZUZENENKO ZERGAK

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINENKO ZERGA (PFEZ)

PFEZa, autonomia erkidegoko araudia duen zerga itundua da, eta zergadunaren ohiko bizilekua du loturagune. Pisu handia du, % 30 inguru, zerga itunduen bilketaren guttizkoan. Horregatik, edozein desbideraketak, txikia izanagatik, diru kopuru handiko aldea dakar sarreretan.

Segidan, aurreikuspeneko eta bilketako daturik adierazgarrienak daude laburbilduta, erakunde eta ekitaldi bakoitzerako:



	AFA	BFA	GFA	GUZTIRA
2003				
Hazkunde aurreikusia, 2003/2002	% 0,9	% 2,1	% 1,6	% 1,7
Gehikuntza orokor eskuratua, 2003/2002	% 8,0	% 5,3	% 3,3	% 5,1
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 7,9	% 3,7	% 2,3	% 3,9
2004				
Hazkunde aurreikusia, 2004/2003	% 3,6	% 4,7	% 4,1	% 4,3
Gehikuntza orokor eskuratua, 2004/2003	% 4,9	(% 0,1)	% 1,1	% 1,1
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	(% 0,3)	(% 4,3)	(% 2,6)	(% 3,1)
2005				
Hazkunde aurreikusia, 2005/2004	% 5,9	% 5,8	% 5,5	% 5,7
Gehikuntza orokor eskuratua, 2005/2004	% 7,7	% 12,1	% 12,6	% 11,5
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 1,7	% 3,4	% 7,1	% 4,3

Desbideraketa orokorrak, aztertutako hiru ekitaldietatik batean ere ez du gainditu aurrekontuaren % 5, EAE osoan. Kopuru absolutuetan, aurreikusitakoa baino 113,4 milioi euro gehiago biltzea ekarri du 2003an (% 3,9); 97,6 milioi gutxiago, 2004an (% -3,1); eta 140,5 milioi gehiago, 2005ean (% 4,3).

Aldundiak bereizita azterturik, aipatzekoa da Arabako Foru Aldundia 2003an, % 7,9 desbideratu baitzen, eta Gipuzkoako Foru Aldundia 2005ean, % 7,1 desbideratu baitzen.

Hala bilketaren bilakaera, nola aurrekontuaren aldean izandako desbideraketak, zuzenean erlazonaturik daude foru aldundiek 2003ko martxoan onartutako zergaren erreformarekin. Erreforma hori izapideetan zen, ekitaldi horretako aurrekontua egitean. Erreforma horrek ekarri zuen, besteak beste, tributazio tasa marjinalak txikiagotzea. Erreforma horrek 2003 zerga ekitaldiari erasan zionez (2004an aurkeztu eta ordaindu beharreko errenta aitortpena), komenigarri iritzi izan zen laneko etekinen gaineko atxikipenen taula tarifa berri bati egokitzea. Hala, erreformaren kostuaren zati bat 2003ko bilketan islatuko zen. Horrenbestez, PFEZarengatik bilketaren gehikuntza 2003an % 1,7ra mugatuko zela uste zen, eta 2004an % 4,3 izango zela gehikuntza.

Azkenik, gehikuntza horiek % 5,1 eta % 1,1 izan dira, hurrenez hurren. Izan ere, 2003ko apirilaren 1 arte atzeratu zen zergaren aldaketa onartzea eta atxikipen taula berriak indarrean sartzea. Atzerapen horrek eraginda, taula berriak aplikatuz eginiko lehenengo sarrerak atzeratu egin ziren: 2003ko maiatz arte enpresa handien kasuan, eta 2003ko uztail arte enpresa txikien kasuan.

Arabako Foru Aldundiak 2003 ekitaldian duen desbideraketa laneko atxikipenetan ageri da: aurreikusitakoa baino hazkunde handiagoa izan dute, bereziki sektore publikoan, pisu espezifiko handiagoa baitu lurralde horretan, beste bietan baino. Aipatzekoa da pentsioak eguneratzearen eragina.



Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusitakoan izandako desbideraketa, 2005ean, bilketaren gehikuntza aurreikuspenetan kontuan hartu ez izanak ekarri zuen. Arestian aipatutako erreformak 2004ko kuota diferentzial garbian izandako eragina izan zen gehikuntza hori.

SOZIJETATEEN GAINEKO ZERGA (SZ)

SZrengatikoko bilketa handitu egin da, zerga itunduen guztizkoaren % 11,3 izatetik % 12,8 izatera, aztergai dugun aldirian.

Autonomia erkidegoko araudia duen zerga itundua da, eta loturaguneak ditu araudiaren eta ordainarazpenaren aldetik. Zerga helbidea Euskadin duten eta aurreko ekitaldian gehienez 6 milioi euroko eragiketa bolumena izan duten zergadunen SZ ordainaraztea, foru aldundien eskumen eskusiboa da. Eragiketa bolumena zenbateko hori baino handiagoa bada, edozein zerga helbide dutela ere, foru aldundiari, Estatuko Administrazioari edo biei ordaintzen diete zerga, lurralde bakoitzean egiten duten eragiketa bolumenaren proportzioan. Aplikatzekoa zaien araudiari dagokionez, aipatu zenbatekoa gainditzen duten enpresak lurralde komuneko araudiak arautuko ditu, baldin Euskadin egiten duten eragiketa bolumena % 25 edo gutxiago bada.

Segidan, aurreikuspeneko eta bilketako daturik adierazgarrienak daude laburbilduta, erakunde eta ekitaldi bakoitzerako:

	AFA	BFA	GFA	GUZTIRA
2003				
Hazkunde aurreikusia, 2003/2002	% 4,3	(% 0,5)	(% 1,8)	(% 0,1)
Gehikuntza orokor eskuratua, 2003/2002	(% 8,7)	(% 3,0)	% 10,7	% 0,1
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	(% 9,7)	(% 3,0)	% 14,5	% 0,9
2004				
Hazkunde aurreikusia, 2004/2003	% 6,7	% 8,9	% 3,6	% 6,8
Gehikuntza orokor eskuratua, 2004/2003	% 13,1	% 12,3	% 4,0	% 9,7
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 8,4	% 7,7	% 1,6	% 5,8
2005				
Hazkunde aurreikusia, 2005/2004	% 4,6	% 4,5	% 5,0	% 4,6
Gehikuntza orokor eskuratua, 2005/2004	% 30,4	% 31,6	% 15,5	% 26,4
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 29,0	% 28,6	% 10,2	% 22,8

Kopuru absolutuetan, aurreikusitakoa baino 9,6 milioi euro gehiago biltzea ekarri du 2003an; 62,7 milioi euro, 2004an; eta 267,9 milioi euro 2005ean.

Desbideraketak, Estatuan, handiagoak izan dira EAekoak baino, 2003 eta 2004 ekitaldietan; 2005ekoan, berriz, nabarmen txikiagoa izan da. Izan ere, ekitaldi horietan % 3,9, % 7,9 eta % 16,5 izan da, hurrenez hurren. Bilketaren aldakuntzari dagokionez, Estatuan % 2,3, % 18,7 eta % 24,9 handitu zen, hurrenez hurren. EAeko bilketa gehikuntzak ere antzekoak izan ziren, 2003 eta 2005 ekitaldietan, eta nabarmen handiagoa 2004an. Desbideraketa nabarmenenak, oro har, zergaren kuota diferentzial garbian



(aurrerantzean, KDG) izaten dira. Kontzeptu horretan sartuta daude, orobat, araudi komuna aplikatzekoa zaien enpresek zergaren kontura egin beharreko hiru ordainketak ere. Hor sartuta daude, beraz, SZren kontura egindako ordainketa zatikatuak, uneko zerga ekitaldikoak; bai eta aurreko ekitaldiko zerga likidatsetik datorren KDGa ere.

Nahiz eta 2003ko desbideraketa orokorra nabarmena ez den, badira nabarmenak Arabako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren desbideraketak. Aldundi horien desbideraketek elkarren kontrako zeinua dute. Izan ere, hazkundeaz egin zituzten aurreikuspenak, berebat, egiaz lortutako bilketaren kontrako zeinukoak izan dira.

Arabako Foru Aldundiak, 2003 ekitaldian, KDGa % 7,3 haziko zela aurreikusi zuen, aurreikuspena egiteko unean bilketa asko hazi baitzitzaien. Hala ere, kontzeptu horrengatik bildutako dirua nabarmen gutxitu zen, bai zergak eragiketa bolumenaren arabera ordaintzen dituzten enpresetarako, bai zergak osorik foru lurraldeari ordaintzen dizkietenetarako.

Gipuzkoako Foru Aldundian, desbideraketa % 14,5 izan zen: aurreikuspena egitean, enpresetan nabari zen dezelerazio ekonomikoak iraungo zuela uste izan zuten, eta, beraz, % 1,8ko jaitsiera aurreikusi zuten. Ekonomiaren susperraldia, ordea, aurreratu egin zen Gipuzkoako enpresetan, zergak beste bi lurraldeetan ordaintzen dituztenekin alderatuta. Gainera, 2002 ekitaldiko itxierako aurreikuspenean % 1,5eko desbideraketa izan zen, eta ekitaldi horretan izandako 10,5 milioi euroko ohiz kanpoko itzulketa ez zen aintzat hartu. Bi xehetasun horiek esplikatzeko dute, hortaz, 5 ehuneko-punturen desbideraketa izatea.

Arabako eta Bizkaiko foru aldundiak desbideraketak, 2004arekin erkatuta, enpresa mozkinen hazkundeari zor zaio. Gipuzkoako Foru Aldundian, aurreko ekitaldian agertu zen hazkunde hori. Bizkaiko Foru Aldundian, gainera, desbideraketa izan zen 2003 ekitaldiko itxierako aurreikuspenean, 4,7 ehuneko-punturena.

2005 ekitaldian, desbideraketa orokorra -267,9 milioi euro- aldundien artean banatuta dago. Arabako Foru Aldundian, 52,6 milioiren desbideraketa; Bizkaiko Foru Aldundian, 177,1 milioi eurorena; eta Gipuzkoako Foru Aldundian, 38,2 milioi euro bildu ziren sobera. Hiru aldundietan, desbideraketa nabarmenagoa da KDGan.

Hazkunde aurreikuspena, % 4,5 eta % 5 artekoa, 2004an izandako bilketa gehikuntza baino askoz txikiagoa izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundian izan ezik. 2004ko itxierako aurreikuspenean, bilketa gehikuntza handiak izan ziren: Araba-Bizkaietako foru aldundietan, % 9 ingurukoak; eta Gipuzkoako Foru Aldundian, % 4 ingurukoa. Horrenbestez, uste dugu aurreikuspenetan gehikuntza handiagoa agertu izan beharko litzatekeela, Euskadiko BPG nominalaren azpitiko gehikuntza aurreikusi beharrean.

Arabako Foru Aldundian, hazkunde orokorra izan da, zergadun guztietan; gainera, aitorpen positiboen kopuruaren gehikuntza batek lagunduta etorri da. Bizkaiko Foru Aldundian, berriz, gehikuntza hiru enpresatan bilduta dago: enpresa horien bilketa % 123 handitu zen, eta gainerakoen batez besteko gehikuntza % 13 izan zen. Gipuzkoako Foru Aldundian, bilketaren gehikuntza, batez besteko horren antzekoa izan da.

Dena dela, onartu behar da bilketaren hazkunde oso nabarmena izan zela 2005ean, enpresa emaitza onen eraginez (burtsan kotizatzen duten sozietateen mozkinak % 40,6



handitu ziren). Horrenbestez, uste dugu % 4,6 hazteko aurreikuspena zuhurregia izan zela, batik batik kontuan izanik aurreikuspena egiteko orduan jadanik nabari zen gehikuntza, % 9 ingurukoa Araban eta Bizkaian.

GAINERAKO ZUZENENKO ZERGAK

Atal honetan sartuta daude hiru zerga figura, zerga itunduengatik bilketa osoaren barruan oso pisu murrizta dutenak (% 1,7 eta % 2,1 bitarte). Hemen bilduta dago Ondarearen gaineko Zergak, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak, eta ez-egoiliarren Errenten gaineko Zergak (aurrerantzean, EZEZGZ) ekarritako diru bilketa.

Desbideraketa erlatibo nabarmena dute 2003 ekitaldian (% -24), eta 2005 ekitaldian (% +41,8). Hala ere, kontuan hartu behar da kopuru absolutuetan 50,7 milioi euro gutxiago biltzea dakartela 2003an, eta 68,4 milioi euro sobera biltzea 2005ean.

Desbideraketaren zatirik handiena esplikatzeko duen zerga, EZEZGZ da: une bakoitzean Estatuan ezarritako arau substantibo eta formal berberak arautzen duten zerga itundua.

Zerga figura horren bidez bildutako diruak oso bilakaera gorabeheratsua du. Hartara, ia ekitaldi guztietan desbideraketa nabarmenak izan dira aurrekontua gauzatzean, eta antzera gertatzen da Estatuan ere.

II.3.2 ZEHARKAKO ZERGAK

BALIO ERANTSIAREN GAINENKO ZERGA (KUDEAKETA PROPIOA)

Zerga itundua da, une bakoitzean Estatuan ezarritako arau substantibo eta formal berberak arautzen dutena. Gainera, harmonizatuta dago Europar Batasun osoan.

Ordinarazteko loturagunea, hauxe da: zergadunak aurreko ekitaldian egindako eragiketa bolumena, eta eragiketa horietatik lurralde komunean edo foralean egindakoen ehunekoa. Azken datu horrek zehazten ditu zein ogasuni ordainduko zaion zerga eta, ordaintzekotan, zein ehunekotan ordaintzen zaion bati edo besteari.

Zerga itunduengatik bilketa osoan zerga horrek duen pisua haziz joan da aztergai ditugun hiru ekitaldietan: % 22,7 zen 2003an, eta guztizkoaren % 26,4 izatera heldu zen 2005ean.

Ondoren, kopuru nabarmenenak daude adierazita, ekitaldi eta erakunde bakoitzerako:



	AFA	BFA	GFA	GUZTIRA
2003				
Hazkunde aurreikusia, 2003/2002	% 3,7	% 4,0	% 5,2	% 4,4
Gehikuntza orokor eskuratua, 2003/2002	% 0,7	% 14,3	% 10,6	% 10,4
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	(% 4,5)	% 8,3	% 7,2	% 5,5
2004				
Hazkunde aurreikusia, 2004/2003	% 7,4	% 6,4	% 6,0	% 6,5
Gehikuntza orokor eskuratua, 2004/2003	% 25,3	% 13,3	% 12,4	% 15,1
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 16,8	% 5,3	% 11,4	% 9,4
2005				
Hazkunde aurreikusia, 2005/2004	% 3,1	% 4,2	% 4,7	% 4,2
Gehikuntza orokor eskuratua, 2005/2004	% 13,7	% 32,8	% 16,4	% 23,7
Desbideraketa, aurrekontuaren aldean	% 12,4	% 33,6	% 12,9	% 22,4

Estatuan, BEZagatik bildutako dirua handitu egin zen aztergai ditugun ekitaldietan, % 9,9, % 9,7 eta % 12,0; aurrekontuetako zenbatekoen aldean izandako desbideraketak, berriz, % 3,6, % 3,8 eta % 4,8 izan ziren, hurrenez hurren.

EAEn, 2003 eta 2004 ekitaldietako desbideraketan eraginez, aurreikusitako zenbatekoak baino 108,1 eta 205,9 milioi euro gehiago bildu dira, hurrenez hurren. Desbideraketek ez dute banaketa berdina izan hiru lurraldeetan. 2005ean, desbideraketa orokorrak (% 22,4) 568,9 milioi gehiago biltzea ekarri du, eta Bizkaiko Foru Aldundian nabarmena izan da desbideraketa.

2003 ekitaldian, Arabako Foru Aldundiak beste bi aldundiek ez bezalako bilakaera izan zuen; izan ere, sarrera ezohikoak izan zituen aurreko ekitaldian, eta aldundi haren zergadun handietako batek bere enpresetako batzuen zerga helbidea aldatu zuen. Gainerako zergadunen hazkundera % 8,6 izan zen.

Bilketaren gehikuntza horren sorburu da ekonomia egoeraren hobekuntza. Halako hobekuntzen eragina, BEZean, Sozietateen Zergan baino urtebete lehenago nabari ohi da.

2004 ekitaldirako, aurreikusi zen bilketaren hazkundera % 6,5 inguru izango zela EAE osoan. Egiaz, 9 puntu handiagoa izan da gehikuntza, eta are handiagoa Arabako Foru Aldundian, % 25,3 gehiago bildu baitu.

Arabako Foru Aldundian izandako gehikuntza horren kausa dira bi enpresaren sarrera ezohikoak (bilketaren gehikuntzaren % 3 eragin zuten) eta gainerako zergadunen bilakaera (bilketaren batez besteko hazkundera EAeko batez bestekoaren 3 puntu gainetik izatea eragin zuen).

Gipuzkoako Foru Aldundian, azkenean eskuratutako bilketa baino 34,6 milioi euro txikiagoa izan zen 2003 ekitaldiaren itxierako aurreikuspena, eta horrek eragin zuen desbideraketaren erdia.



2005 ekitaldian, aldaketa garrantzitsua izan zen inportazioei parekatutako eragiketen (aurrerantzean, IPE) zergapetzean, 87/2005 Errege Dekretua (2005eko urtarrilaren 31koa) argitaratu baitzen. Dekretu horren bidez, aldatu egin zen eragiketa horiei dagozkien kuotak likidatzeko mekanismoa; aurrerantzean, ordaintzen diren autolikidazioan bertan egin daiteke kenkaria. Arau aldaketa hori ez zen kontuan hartu 2005eko aurrekontua egitean. Izan ere, 2004ko urrian egin zen aurreikuspena; eta errege dekretua ez zen onartu hurrengo ekitaldiko urtarril arte, eta 2005eko apirilaren lehenean sartu zen indarrean.

Zergadunak, oro har, hidrokarburoen, tabakoaren eta alkoholaren operadoreak dira. Ordu arte, eragiketa horien BEZa aduanetan ordaintzen zuten, eta jasandako BEZ gisa ageri zen foru ogasunei hilero edo hiru hilean behin aurkezten zizkieten aitorenpenetan. Eragiketa horiengatik sortutako kuotak, prozedura berriarekin, aduanetan aurkeztutako autolikidazio berean ken daitezke, foru ogasunetan aurkezten dituzten aitorenpenetan jasandako kuota gisa sartu gabe. Horrenbestez, handitu egiten da kudeaketa propioko BEZagatik bildutakoa.

Hala, bada, inportazioen BEZetik barne eragiketen BEZera joan da kopuru bat. Hartara, foru aldundiek utzi egin diote aduanetako BEZaren doikuntzako zati bat jasotzeari, eta inportazioekin parekatutako eragiketengatik kenkariak bereganatzeari, zergadunengandik zuzenean bildutako BEZean. Gehikuntza horren ondorioz, 106,1 milioi euroren gutxitzea gertatu da aduanetako BEZaren doikuntzan.

Estatuak foru ogasunen alde galdutako bilketa 288,0 milioi euroena dela kalkulatu du; adierazi duenez, horietatik 209,0 milioi berreskuratzen dira, doikuntzak direla eta, zenbateko txikien bidez. Hala ere, kopuru horietan EAE eta Nafarroa ditu sartuta.

Beste alde batetik, zergapetzearen aldaketa horrek foru ogasunetan izan duen eragina txikiagotze aldera, lurralde arteko doikuntza onartu zuen HDEK-k, 2005eko urrian. Erabakian adierazten denez, legezko aldaketa horren eragina asko aldatzen da batetik bestera. Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek egindako kalkuluen arabera, bilketa berria Bizkaian izango da % 85 baino gehiagoan, eta desabantaila garbia izango dute beste bi lurraldeek. Hori berdintzeko, BEZagatik bildutakoari doikuntza bat ezartzen zaio, zerga itunduetatik datozen sarreren % 1,1ekoa gehienez ere.

Doikuntzaren behin betiko likidazioa, bilketa osoaren % 1,1 izan zen: hots, 123,9 milioi euro. Doikuntza horren ekarpen osoa Bizkaiko Foru Aldundiak egin zuen, eta beste aldundien artean banatu zen: 41,8 milioi euro Arabako Foru Aldundiarentzat, eta 82,2 milioi euro Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat.

Arabako Foru Aldundian, lurralde arteko doikuntzaren eragina kenduta, aurreikuspenaren aldean izandako desbideraketa % 3,3 izango litzateke. Eta Gipuzkoako Foru Aldundian, desbideraketa % 3,1 izango litzateke.

BEZeko aldakuntza balioztatzearen, demagun aduanetako BEZeko doikuntzako aldakuntza, osorik, zergapetzearen aldaketak eragin duela, bi kontzeptuak batera aztertuz:



	AFA	BFA	GFA	GUZTIRA
Kudeaketa propioko BEZeko desbideraketa	% 12,4	% 33,6	% 12,9	% 22,4
Aduanetako BEZeko doikuntzako desbid.....	(% 21,2)	(% 21,2)	(% 21,2)	(% 21,2)
Baterako desbideraketa.....	% 4,0	% 17,6	% 3,8	% 10,4
Kudeaketa propioko BEZeko bilketako gehikuntza	% 13,7	% 32,8	% 16,4	% 23,7
Bilketako gehikuntza, guztira	% 7,6	% 20,5	% 9,0	% 14,3

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokionez, esan beharrekoa da, lehenik eta behin, desbideraketa nabarmena izan dela 2004ko itxierako aurreikuspenean (% 4,9), eta, espero zen hazkundera kontuan hartuta, 2005eko aurrekontua 54,8 milioi euro handitzea ekarriko zukeela. 2005erako hazkunde aurreikuspena, % 4,2, zuhurra izan zen, gogoan izanik 2004ko itxierako aurreikuspenean % 8,1eko hazkundera espero zela (azkenean, % 13,3koa izan zen).

Eskuratutako bilketa gehikuntza handiari buruz, esan beharrekoa dugu urtarriletik apirilera izandako bilakaera positiboa indartu egin zutela, beharbada, apirilean 87/2005 Errege Dekretua indarrean sartu izanaren ondorioek. Aldaketa horrek indartu egiten du bilketaren hazkundera bera, ekonomia jardueraren dinamismoa dela kausa. Izan ere, BEZeko kuotak automatikoki kengarriak izateak finantza kostu txikiagoa dakarkie enpresei. Eragin hori, gainera, areagotu egin zuen petrolioa garestitu izanak. Bizkaian, hidrokarburoei lotutako IPEen operadore nagusiari erasan dio horrek.

Arestian adierazi dugunez, kudeaketa propioko BEZean eta aduanetako BEZeko doiketan batera izandako eraginak, Bizkaiko Foru Aldundian, % 17,6 desbideratzea ekarri du, eta bildutakoa % 20,5 gehitzea.

Azken batean, uste dugu zergapetzea aldatzearen eraginak esplikatzen duela kudeaketa propioko BEZean desbideratze orokorra izatea, % 12koa. Gainerakoa -hau da, % 10,4-, uste izatekoa da Bizkaiko Foru Aldundiak bildutakoa aurreikusitakoa baino gehiago hazi izanari zor zaiola. Horren arrazoia, zati handi batean, hazkunderaren aurreikuspen zuhurregia egin izana da.

GAINERAKO ZEHARKAKO ZERGAK

Fabrikazioko zerga bereziak (hor sartuta daude alkoholarena eta edari eratorriena, eta tarteko produktuena), hidrokarburoenak, tabako laboreenak, garagardoarenak eta argindarrarenak, garrantzi handia dute zerga itunduengatiko bilketa osoan: % 11,9 inguru, 2005ean. Hala ere, ez dute desbideratze handirik izan, aurreikusitako zenbatekoen aldean.

“Zeharkako beste zerga batzuk” kontzeptuaren barruan, hainbat zerga figura bildu dugu, hala nola: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (aurrerantzean, OEJDZ), garraiobide jakin batzuen gaineko zerga berezia, eta abar. Zerga horien ekarpena, bildutako diru kopuru osoaren barruan, % 5 da. Kopuru erlatiboetan,



baina, % 8,5 desbideratu dira aurrekontuarekiko 2003an, eta % 9,9 2004an; 2005ean, ordea, ez da desbideratze nabarmena izan.

Munta handieneko eta desbideratze handieneko zerga figura, OEJDZ izan da, % 16,1 desbideratu baitzen 2003an, eta % 13,5 2004an. Bi urte horietan, orobat, bildutako dirua nabarmen gehitu zen, aurreko ekitaldiarekin konparatuta. Kopuru absolutuetan, 47,4 eta 46,4 milioi euro sobera bildu ziren, hurrenez hurren.

2003 ekitaldiari dagokionez, desbideraketa Bizkaiko Foru Aldundian kontzentratu zen, % 23,8, nahiz eta Arabako Foru Aldundiak % 14,7ko desbideraketa izan.

Bizkaiko Foru Aldundian, itxierako aurreikuspeneko desbideraketak 9 puntu esplikatzen ditu, eta gainerakoa urte osoan izandako bilketa gehikuntzari zor zaio. Izan ere, diru sarrera handiagoak izan dira, denboran batera gertatu diren baina ezohikotzat jo ez diren kapital handitze edo txikitzeengatik.

Arabako Foru Aldundian, aurreko ekitaldiko itxierako aurreikuspeneko desbideraketa da desbideraketa orokorreko 4 punturen kausa; gainerakoa, bi sozietate eragiketak ekarritako diru sarrerei zor zaie. Eragiketa horiek (higiezinaren sektoreko enpresenak) 2,6 milioi euro ekarri zituzten.

2004 ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundian berriz ere desbideraketa izan zen aurreko ekitaldiko itxierako aurreikuspenean, eta horrek desbideraketa orokorreko 10 puntu esplikatzen ditu. Desbideraketaren gainerakoak, ohiz kanpoko diru sarreretan du sorburua, bai ondare eskualdaketetan, bai egintza juridiko dokumentatuetan. Kapital gehikuntzako eragiketa bakarrari zor zaizkio.

II.3.3 BEZ-ARENGATIKO ETA ZERGA BEREZIENGATIKO DOIKUNTZAK

Estatuarekin bi doikuntza egiten dira: bata, BEZari buruzkoa; bestea, zerga bereziei buruzkoa. Foru aldundien artean banatzen dira horiek, koefiziente horizontalen proportzioan.

BEZagatikoko doikuntzak bi osagai ditu: bata, inportazioen BEZarena (Estatuak biltzen du beti); bestea, barne eragiketena (zergaren loturaguneek erasaten diote).

Zerga bereziei doakionean, bilketa eta kontsumoa egokitzearen, doikuntza egiten da, Alkoholaren eta Edari Eratorrien Zergarako, Tarteko Produktuen Zergarako, Garagardoaren Zergarako, Hidrokarburoen Zergarako, eta Tabako Laboreen Zergarako. Tabako Laboreen Zergaren kasuan izan ezik, gainerako zergetan, bi doikuntza osagai daude: inportazioena eta barne eragiketena.

Bi doikuntza motetan, EAEren bilketa eta Estatuarena sartzen dira.

BEZaren doikuntza dela eta Estatuak kobratu beharreko zenbatekoen desbideraketak ezmaterialak izan dira 2003 eta 2004 ekitaldietan, eta garrantzi handiagoa izan dute 2005ean, inportazioekin parekatutako eragiketen zergapetzea aldatu izanaren eraginez. Alderdi hori aztertu dugu, jadanik, kudeaketa propioko BEZaren atalean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zerga berezietatik datozen doikuntzek, aztergai dugun aldian, Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoak ekarri dituzte. Doikuntza horietan, desbideraketak handiak izan dira kopuru erlatiboetan; ez, ordea, kopuru absolutuetan.

Kontuan izan beharrekoa da zaila dela doikuntzaren zenbatekoa aurreikustea, eta kontzeptu horregatik EAEn bildutako diruak ez duela desbideraketa nabarmenik izan.



III. SOBERA BILDUTAKO DIRUEN XEDEA

III.1 ERAKUNDEEN ARTEKO BANAKETA

Aurreko atalean ikusi dugunez, aztergai ditugun hiru ekitaldietan, aurrekontuetan aurreikusitakoa baino gehiago izan da banatu beharreko zerga itunduekin bildutakoa.

Hona hemen zenbat bildu den sobera, foru aldundiak, Jaurlaritza eta udalak bereizita:

	Milioi euro				
	2003	2004	2005	Guztira	%
Eusko Jaurlaritza	180,6	200,8	609,3	990,7	% 66,7
Arabako Foru Aldundia	8,2	29,1	11,5	48,8	% 3,2
Bizkaiko Foru Aldundia.....	58,3	(31,9)	174,8	201,2	% 13,6
Gipuzkoako Foru Aldundia.....	46,1	18,9	21,6	86,6	% 5,8
Estatuarentzako kupoko aldakuntza.....	(0,9)	16,7	1,8	17,6	% 1,2
Udalen partaidetza, zerga itunduetan.....	8,9	23,3	122,1	154,3	% 10,4
Baliabide erabilgarrien gehikuntza	301,2	256,9	941,1	1.499,2	% 100,9
Kontabilitate irizpideetako aldeak	(45,3)	30,9	0,0	(14,4)	(% 0,9)
Sobera bildutakoa	255,9	287,8	941,1	1.484,8	% 100,0

Bilketaren gehikuntza horiek, erakunde bakoitzean -sortu dituzten erakunde konpromiso handienei erantzun eta gero- azkenean erabilgarri diren baliabideak dira, eta haien kontabilitate erregistroei jarraituz kalkulatu dira.

Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek, aztertutako ekitaldietan, aurre egin behar dieten konpromiso soberak finantzatzeko baizik ez dituzte gaitu bilketa handiagoagatiko diru sarrerak. Baliabide gehikuntzak, eskuarki, ekitaldiko azken hilean agertzen dira. Horrenbestez, ez dituzte gastu berriak finantzatzen, salbu eta aurrez adierazi ditugun horiek. Baliabide gehikuntzek altxortegiko geldikina handitu dute ekitaldi itxieran; geldikin hori hurrengo ekitaldian erabiltzen da, aurrekontuko aldaketak finantzatzeko.

Betebeharrak erregistratzeko irizpidean, aldeak izan dira erakunde batetik bestera. Zenbaitetan, korrelazioa hautsi da sarreren (bilketa) eta gastuen (ekarpenak eta Elkartasun Funtsa) erregistroan. Hartara, Eusko Jaurlaritzak 2003ko Elkartasun Funtsaren likidazioa 2004 ekitaldian kontabilizatu zuen; eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 2002 eta 2003 ekitaldietako ekarpenen eta Elkartasun Funtsaren likidazioa, onartu ziren ekitaldietan kontabilizatu zuen, hau da, hurrengo ekitaldian. Aitzitik, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, likidazio horietako bakoitza bere ekitaldian erregistratu zuten.

2005ean, erakunde guztiek irizpide bera erabili dute: ekitaldi horretan erregistratu dute ekarpenen eta Elkartasun Funtsaren likidazioa.

Ikus daitekeenez, Jaurlaritzak bilketaren gehikuntzan duen partaidetza txikiagoa da koefiziente bertikala deritzona baino (% 70,44). Horren kausa nagusia da, Jaurlaritzak Elkartasun Funtsara eginiko ekarpena, hasieran aurreikusitakoa baino kopuru handiagoak bideratu behar izan baitira horretara 2003 eta 2005 ekitaldietan.



Koefiziente bertikalak zehazten du aldundiek EAEko karga erkideei eusteko egin beharreko ekarpen orokorra. Baliabide erabilgarrien gainean aplikatzen da, behin Ekarpeneren Legean ezarritako kenkariak aplikatu eta gero (eta ez, zuzenean, tributuen bilketaren gainean). Kenkaririk nabarmenena, Estatuari ordaindu beharreko kupoak da. Aztergai dugun aldian, banatu beharreko sarreraren % 11 izan da kupoak, gutxi gorabehera.

Estatuarentzako kupoak, dena dela, ez du ia eraginik izan sobera bildutako diruen banaketaren gainean. Izan ere, ez dago sobera bildutako diru horiei lotuta, eta ez da alde nabarmenik izan ekarpenen kalkuluan sartutako zenbateko aurreikusien eta likidatuen artean.

Bilketaren gehikuntzak aldundi bakoitzak erabilgarri dituen baliabideen gainean duen eragina, aldatu egiten da, aldundi horrek beste aldundien aldean bere bilketan izan duen benetako gehikuntzaren zenbatekoaren arabera. Kontuan izan beharrekoa da aldundi bakoitzak ehuneko bat ematen duela -koefiziente horizontala-, hiru aldundien bilketaren baturaren gainean. Lurralde bakoitzaren ekarpeneko koefiziente horiek kalkulatzeko, errenta erlatiboaren (% 70) eta zerga ahaleginaren irizpideak erabiltzen dira, bilketa ahalmenarekin haztatuta (% 30), eta urtero berraztertzen dira (ikus azalpenetako IV.1 atala).

Udalek zerga itunduetan duten parte hartzeari dagokionez, argitu beharrekoa dugu 2003 ekitaldiari buruzko kopurua. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ekitaldi horretan sartu zuen 2002ko likidazioa. Udalek itzultzekoa izan zen 2002 ekitaldiko likidazioa, 23,7 milioi euroko zenbatekoarekin.



III.2 SOBERA BILDUTAKO DIRUEN XEDEA

Eusko Jaurlaritzaren 2003, 2004 eta 2005 ekitaldietako aurrekontuak eta nola gauzatu diren aztertuta, zehaztu ahal izango dugu ea zein erlazio dagoen aurreko atalean adierazitako gehikuntzen eta ekitaldi bakoitzeko altxortegiko soberakinaren artean:

	Milioi euro			
	2003	2004	2005	GUZTIRA
Diruzaintzako geldikina, hasieran.....	774,3	923,3	1.236,0	774,3
Foru aldundien ekarpenak				
AFA.....	30,2	31,7	110,8	172,7
BFA.....	90,8	96,1	333,5	520,4
GFA.....	59,6	63,0	218,2	340,8
Elkartasun Funtsa.....	0,0	10,0	(53,2)	(43,2)
Hasierako aurrek. baino ekarpen handiagoak, ekitaldian	180,6	200,8	609,3	990,7
Hasierako aurrek. ez zeuden beste sarrera onartu batzuk	158,1	342,7	(13,9)	486,9
Sarrerekin finantzaturiko aldaketak.....	(342,6)	(402,3)	(410,2)	(1 155,1)
Egikaritu gabeko gastuak.....	135,1	165,8	267,6	568,5
Itxitako ekitaldietako emaitzak.....	17,8	5,7	19,1	42,6
Diruzaintzako geldikina, itxieran	923,3	1.236,0	1.707,9	1.707,9
Xede eratxekiko gastuak, ustekabeak eta doikuntzak	(197,9)	(183,0)	(1.665,9)	
Diruzaintzako geldikina, Eusko Jaurlaritzaren arabera doitua	725,4	1.053,0	42,0	
TVCP/HKEEren txostenetako doikuntzak.....	(583,6)	(912,5)	0,0 (*)	
Diruzaintzako geldikina, TVCP/HKEEren arabera doitua	141,8	140,5	42,0	

(*) TVCP/HKEEek ez dio doikuntzarik egin Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako diruzaintzako geldikinari. Izan ere, Jaurlaritzak garbi jakinarazten ditu, aurrekontuaren likidazioarekin batera doazen oharretan, diruzaintzako geldikina 409,7 milioi euro gehitzea lekarketen kontabilitate irizpideetako aldeak.

Eusko Jaurlaritzak 2005 ekitaldian baizik ez ditu egin aurrekontu aldaketak, ekitaldi bereko ekarpenen gehikuntzak erabiliz. Elkartasun Funtseko zuzkidura 53, 2 milioi euro handitzea finantzatu zuen, urte hartan. Elkartasun Funtzari 2004 ekitaldian zegozkion 10 milioi euroak, aurrekontua egikaritu ez izanetik datoz. Izan ere, ez zen beharrezkoa izan hura zuzkitzea, hura likidatzeko araei jarraituz.

Aurreko taulan ageri denez, Jaurlaritzak jasotako ekarpenik handienak diruzaintzako geldikinean sartu dira. Geldikin horrekin finantzatu dira, hurrengo ekitaldian, dagozkion aurrekontu aldaketak, IV.4.1. atalean zehaztuak. Herri-Kontuen Euskal Epaitegi honen txostenen arabera, indarrean ziren aurrekontu araei jarraituz egin ziren aurrekontu aldaketa horiek.

Arabako Foru Aldundian, honako hau da aurreko atalean adierazitako gehikuntzen eta ekitaldi bakoitzeko diruzaintzako geldikinen arteko erlazioa:



	Milioi euro			
	2003	2004	2005	GUZTIRA
Diruzaintzako geldikina, hasieran.....	66,9	66,5	100,0	66,9
Bilketaren gehikuntza	11,2	92,5	107,8	211,5
Ekarpen orokor handiagoa	(30,2)	(31,7)	(110,8)	(172,7)
Elkartasun Funtseko aldakuntza.....	31,4	(13,5)	20,7	38,6
Ordaindu beharreko kupoko aldakuntza.....	0,4	(2,8)	(0,3)	(2,7)
Udalak Finantzatzeko Foru Funts handiagoa (*).....	(4,6)	(15,4)	(5,9)	(25,9)
Bilketa garbiaren gehikuntza	8,2	29,1	11,5	48,8
Hasierako aurrek. ez zeuden beste sarrera onartu batzuk	(14,9)	0,6	1,9	(12,4)
Sarreraren hasierako superabita.....	0,0	1,8	24,9	26,7
Sarrerekin finantzaturiko beste aldaketak	(33,1)	(46,7)	(75,3)	(155,1)
Egikaritu gabeko beste gastuak	52,2	60,2	80,8	193,2
Itxitako ekitaldietako emaitzak.....	(12,8)	(11,5)	(22,0)	(46,3)
Diruzaintzako geldikina, itxieran	66,5	100,0	121,8	121,8
Finantzatutako desbideraketak, eta finantza doikuntza.....	(49,4)	(56,6)	(55,6)	
Diruzaintzako geldikin erabilgarria, BFAren arabera	17,1	43,4	66,2	
TVCP/HKEEren txostenetako doikuntzak	(1,3)	0,0	0,0	
Diruzaintzako geldikina, TVCP/HKEEren arabera doitua	15,8	43,4	66,2	

(*) Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsearen kontzeptuan kontabilizatzen den gehikuntza besterik ez du hartzen. Ez du hartzen, ordea, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko aldakuntza, ez baitugu kontuan hartu gure analisian.

Arabako Foru Aldundiak bilketaren gehikuntzekin finantzatu ditu, ekitaldietako bakoitzean, aurrekontu aldaketak. Aldaketa horiek 37,1 milioi, 49,3 milioi eta 123,4 milioi euro izan dira, hurrenez hurren, eta erakunde konpromisoetako gastuen partidei dagozkie. Bilketaren gehikuntza, erakunde konpromisoetatik garbi, diruzaintzako geldikinean sartu da. Geldikin horrekin, hurrengo ekitaldian, aurrekontu aldaketak finantzatzen dira. Aldaketa horien xehetasunak, 2003, 2004 eta 2005 ekitaldietakoak, IV.4.2. atalean jaso ditugu.



Bizkaiko Foru Aldundian, honako hauek dira bilketaren gehikuntzak -erakunde konpromisoetatik garbi-, eta aztergai dugun ekitaldietako bakoitzean metatutako emaitzarekin duten erlazioa:

	Milioi euro			
	2003	2004	2005	GUZTIRA
Hasieran metatutako emaitza	273,2	191,6	178,5	273,2
Bilketaren gehikuntza	106,7	96,7	623,7	827,1
Ekarpen orokor handiagoa	(63,4)	(96,1)	(333,5)	(493,0)
Aurreko ekitaldiko ekarpen orokorraren likidazio handiagoa	(9,1)	(27,4)	0,0	(36,5)
Elkartasun Funtseko aldakuntza.....	3,0	2,3	(11,2)	(5,9)
Aurreko ekitaldiko Elkartasun Funttsaren likidazioa»	0,0	(2,3)	0,0	(2,3)
Ordaindu beharreko kupoko aldakuntza.....	0,3	(8,4)	(0,9)	(9,3)
Udalak Finantzatzeko Foru Funtts handiagoa	(2,9)	3,3	(103,3)	(102,9)
Udalkutxa 2002 likidazioa.....	23,7	0,0	0,0	23,7
Bilketa garbiaren gehikuntza	58,3	(31,9)	174,8	201,2
Hasierako aurrek. ez zeuden beste sarrera onartu batzuk	(17,8)	16,2	(84,6)	(86,2)
Sarrerekin finantzaturiko beste aldaketak	(95,9)	(59,6)	(22,6)	(178,1)
Egikaritu gabeko beste gastuak	82,1	69,5	76,1	227,7
Hasierako aurrekontu defizita	(126,2)	0,0	0,0	(126,2)
Itxitako ekitaldietako emaitzak.....	17,9	(7,3)	(1,5)	9,1
Itxieran metatutako emaitza	191,6	178,5	320,7	320,7
Erakunde konpromisoetarako hornidura	(124,2)	(155,8)	(155,0)	
Emaitza metatu erabilgarria, BFAREN arabera	67,4	22,7	165,7	
TVCP/HKEEren txostenetako doikuntzak.....	(50,6)	11,2	(41,4)	
Diruzaintzako geldikina, TVCP/HKEEren arabera doitu	16,8	33,9	124,3	

Bizkaiko Foru Aldundiak, sarreraren likidazioan, kaudimen gabeziatarako hornidurako ezeztatzeak eta kobratzeke dagoena aurkezten ditu, garbi.

Bizkaiko Foru Aldundiak aurrekontu aldaketak egin ditu, ekitaldi bakoitzean: 65,3 milioi, 135,2 milioi eta 451,7 milioi euro. Aldaketa horiek, erakunde konpromisoetako gastuen partidei dagozkie. Bilketaren gehikuntza, erakunde konpromisoetatik garbi, diruzaintzako geldikinean sartu da. Geldikin horrekin, hurrengo ekitaldian, aurrekontu aldaketak finantzatzen dira. Aldaketa horiek IV.4.3. atalean zehaztuta daude.



Azkenik, hona hemen Gipuzkoako Foru Aldundiari buruzko kopuruak:

	Milioi euro			
	2003	2004	2005	GUZTIRA
Hasieran erabilgarri ez ziren kreditu eragiketekin				
finkatutako diruzaintzako geldikina	360,1	349,3	284,3	360,1
Bilketaren gehikuntza	138,0	98,6	209,6	446,2
Ekarpen orokor handiagoa	(59,6)	(63,0)	(218,2)	(340,8)
Elkartasun Funtseko aldakuntza	(7,4)	0,0	43,7	36,3
Ordaindu beharreko kupoko aldakuntza	0,2	(5,5)	(0,6)	(5,9)
Udalak Finantzatzeko Foru Funtz handiagoa	(25,1)	(11,2)	(12,9)	(49,2)
Bilketa garbiaren gehikuntza	46,1	18,9	21,6	86,6
Hasierako aurrek. ez zeuden beste sarrera onartu batzuk	1,0	12,4	(22,1)	(8,7)
Sarrerekin finantzaturiko beste aldaketak	(425,0)	(334,0)	(241,4)	(1 000,4)
Egikaritu gabeko beste gastuak	347,5	236,9	314,3	898,7
Sarreraren hasierako superabita	22,5	0,0	0,0	22,5
Itxitako ekitaldietako emaitzak	(2,1)	0,0	(0,2)	(2,3)
Hartzekodunen aldakuntzak, sarrerak itzultzeagatik	(0,8)	0,8	(1,7)	(1,7)
Itxieran erabilgarri ez ziren kreditu eragiketekin				
finkatutako diruzaintzako geldikina	349,3	284,3	354,8	354,8
Erabilgarri ez den finantzaketa	(205,0)	(205,0)	(205,0)	
Diruzaintzako geldikin erabilgarria, GFAren arabera	144,3	79,3	149,8	
TVCP/HKEEren txostenetako doikuntzak	0,1	8,5	6,2	
Diruzaintzako geldikina, TVCP/HKEEren arabera doitua	144,4	87,8	156,0	

Gipuzkoako Foru Aldundiak bilketaren gehikuntzekin finantzatu ditu, ekitaldietako bakoitzean, aurrekontu aldaketak. Aldaketa horiek 88,2 milioi, 79,8 milioi eta 238,8 milioi euro izan dira, hurrenez hurren, eta erakunde konpromisoetako gastuen partidei dagozkie. Bilketaren gehikuntza, erakunde konpromisoetatik garbi, diruzaintzako geldikinean sartu da. Geldikin horrekin, hurrengo ekitaldian, aurrekontu aldaketak finantzatzen dira. Aldaketa horien xehetasunak, 2003, 2004 eta 2005 ekitaldietakoak, IV.4.4. atalean jaso ditugu.



IV. AZALPENEZKO ATALAK

IV.1 EAE-KO FINANTZAKETA EREDUA

EAEren eta Estatuaren arteko zerga eta finantza harremanak, Ekonomia Itunaren bidez arautzen dira. Eta EAEk Estatuaren kargak finantzatzeko egin beharreko ekarpena (“kupoa” deritzona) kalkulatzeko metodologia, bost urterako legearen bidez onartzen da.

Kupoa zehazteko, kontuan hartzen da EAEk eskumenak bereganatuak ez dituen gaietatik datozen kargen eta sarreraren arteko aldea. Karga eta sarrera horiek kalkulatzeko, Estatuaren aurrekontu orokorrei begiratzen zaie, eta alde horri % 6,24ko egozte indizea aplikatzen zaio. Kupo hori oinarri urterako kalkulatu da -aztergai dugun aldirian, 2002. urterako-, eta urtero eguneratzen da, Estatuak zerga itunduengatik dituen sarreraren aldakuntzaren arabera.

EAEko erakunde erkideen eta EAEko lurralde historikoetako foru organoen arteko eskumen eta baliabide banaketa, LHLak arautzen du. LHLaren bidez sortu zen HDEK.

